



## Autodeterminazioaren aldeko mobilizazio ugari

**TOLOSALDEA-LEITZALDEA** ▶ Bi eskualdeetan mobilizazio eguneko deia erantzun zioten herritarrek

**DEBEKUA** ▶ Amezketan eta Leitzan ezarri zuen Garzon Espainiako Auzitegi Nazionaleko epaileak ▶ 2

**TOLOSA** ▶

**Mikel Laboak zuzeneko berezia eskainiko du**

Martxoaren 7an Leidorren izango da kontzertua ▶ 3

**IBARRA** ▶



Amelia Barquin. HITZA

**Jatorकिन Kulturarteko Jardunaldi «positiboak»**

Barquin eta Jimenez adituak gaiaren inguruan aritu dira ▶ 6



Jende ugari bildu zen *Autodeterminazioaren alde baldintza demokratikoak Euskal Herriarentzat* lelopean, irudian Ibarako manifestazioa. m.s.

**ANOETA** ▶

**Biztanleen %69ak erabiltzen du euskara eguneroko jardunean**

Haurrak eta gazteak dira hizkuntza gehien erabiltzen dutenak ▶ 4

**ZAS**  
soinu ikastaroa  
Informatika musikala (Cubase)  
Grabaketa eta masterizazio profesionala.  
P.A. eta monitoreak  
Eta aber  
943 65 35 35  
[www.sointek.net](http://www.sointek.net)

**NESTOR ARDANAZ ESTUDIO**  
oria kalea 4  
tlf.943 65 22 28 - 626 78 21 00

## POLITIKA ▶

## ESTI EZEIZA

*Autodeterminazioaren alde, baldintza demokratikoak Euskal Herriarentzat* lelopean Amnistiaren Aldeko Mugimenduak mobilizazioak deitu zituen atzo iluntzerako. Baina atzo goizean, mobilizazioak debekatzeko agindua eman zuen Espainiako Auzitegi Nazionaleko Baltasar Garzon epaileak. Ertzaintzari mobilizazioak debekatzeko behar ziren neurriak hartzeko agindu zien, horien artean, manifestazioen deitzaileak eta antolatzaileak atxilotzeko agindua, «erakunde terroristak» kide izatea eta aginpide judizialari desobediencia larria egitea egotzita.

Dignidad y Justicia taldeak lehenengo ostegunean egindako eskaera aintzat hartuta, mobilizazio deialdiak debekatzeko eskatu zuen herenegun fiskalak Garzoni. Halaber, Dignidad y Justicia taldeak Poliziari eta Guardia Zibilari mobilizazioen inguruko deitzailei buruzko txostenak egin zitzaizkion. Txosten horiek aurkeztu ostean egin zuen fiskalak debeku eskaera. Deia egin dutenen atzean Askatasuna egon zitekeen zantzuak bazeudela zioen fiskalak, eta jarduerak etenda dituen erakundea izanik, mobilizazioetara ezin dela deitu argudiatu zuen debekua eskatzeko.

## Eskualdeko deialdiak

Eskualdeko mobilizazioei dagokienean, Tolosan, Ibarra, Leitzan, Villabonan, Orendainen, Ikaztegieta, Amezketa, Anoetan eta Alegian luzatu zituzten deialdiak. Hauetatik Amezketa eta Leitzakoa geldiarazteko agindua eman zion Garzonek Ertzaintzari, mobilizazioetarako deia Askatasunak egin zuelako. Hori dela eta, Amezketa herriarrek bertan behera utzi behar izan zuten auto karabana «azken orduko arazoak» zirela eta. Leitzakoek berriz, debekuaren aurrean, herri batzarra egin zuten udaletxe barruan. Tolosan, berriz, herri batzarra egin zuten. Bertan, gogor salatu zuten «prozesu demokratikoa aurrera eramateko hau ez dela bidea» eta «alderdiek debekua aurrera eramaten utzi izana».

## iragarki laburrak ▶

## EROSTEKO

**Artoa aletzeko makina.** Artoa aletzeko makina bat erosiko nuke. Deitu 662 34 89 36ra.

## LANA

**Etxeko lanak.** Etxeko lanetarako

pertsona bat behar da. Goizez bi ordu. Telefono zenbakia: 628 163 722.

## SALGAI

**Autoa.** BMW M3a. Urdina, 286 zaldi. 1995 urtekoa. 153.000

kilometro liburuarekin. 18ko lllantak eta sapaia. Egoera onean. 14.000 euro. Deitu 943 65 41 43 telefono zenbakira.

**Autoa.** Ford Scort 1.800 TD. Matrikula: SS-BC. Interesatuek deitu 943 65 52 88 zenbakira.

# Autodeterminazioaren aldeko aldarri ugari mobilizazio egunean

Amezketa eta Leitzan debekatu zituen mobilizazioak Espainiako Auzitegi Nazionaleko Baltasar Garzon epaileak



Anoetan, 25 lagun inguru bildu ziren konzentrazioa egiteko. I. GARCIA



Tolosan herri batzarra egin zuten 50 lagun inguruk Triangulo plazan. E. EZEIZA

## ERLIJIOA ▶

## Penitentziako sakramentua ospatuko da bihar

Bihar, ostirala «Eguberrieta-ko jaiak behar bezala prestatzeko» penitentziako sakramentua ospatuko da Santa Maria parrokian. 20:00etan hasiko da elizkizuna.

## GIZARTEA ▶

## Renfek aldirikoan zerbitzuak indartu ditu gaur

Santo Tomas eguna dela eta, Donostiara joateko Renfek aldirietako zerbitzua indartuko du gaur. Goizeko lehen orduetan hiriburura joateko tren gehiago egongo dira, eta eguerdiko puntako orduetan, berriz, handik irteteko.

## GIZARTEA ▶

## Atsedenenaren konpartsan parte hartzeko aukera

Bihar, 19:30etik 20:30era ize-na eman beharko dute, Atsedena taldearen Inauterietako konpartsan parte hartu nahi dutenek. Santa Maria parroki etxeko lehen pisuan edo 680 27 74 11an egin beharko dute. Gainera, aisialdi taldearen 25. urteurrena dela eta, aurtun, galaz aterako dira.

## KULTURA ▶

## Linazasoro eta Igerabideren lan berriak kalean

Bihar, Errota haur liburuetan, 19:00etan, Karlos Linazasoro eta Juan Kruz Igerabidek beraien liburu berriak aurkeztuko dituzte. Auskalo bumeran argitaletxearen eskutik Linazasororen *Hogeita sei urte geroago* eta Igerabideren *Ilgaria ezpainetan* lan berriak izango dira kalean bihurtik aurrera.

## KULTURA ▶

## 'El perro mongol' filma ikusgai, gaur Leidorren

Gaur, Zine Forumean *El perro mongol* izango da ikusgai. Pelikula honek arrakasta handia lortu zuen 2005eko Donostiako Zinemaldian.

### TOLOSALDEKO HITZA.INFO

**Inkesta.** Opariak egiten zenbat diru gastatuko duzula aurreikus duzu pertsona bakoitzeko Gabon hauetan? Idatzi gure webgunean.

KULTURA ▶

# Mikel Laboak kontzertua eskainiko du martxoaren 7an

2007ko lehen sei hilabeteen Leidorren izango diren ekitaldietan garrantzitsuena izango da, 'Misterioso asesinato en Manhattan' antzezlanarekin batera

IÑIGO TERRADILLOS

Donostian iragan abuztuan egin zen Bakearen Aldeko Jaialdian eskaini zuen azken kontzertua Mikel Laboa musikari donostiarrak. Emanaldi hori bere azken zuzeneko zela uste bazen ere, 2007ko martxoan bira berri bati ekingo dio, eta Tolosakoa izango du lehen-dabiziko hitzordua. «nolabaiteko berragerpena dela esan daiteke». Kontzertua martxoaren 7an, asteazkenean izango da Leidor aretoan.

«Mikel Laboaren kontzertua izango da 2007ko lehen urte erdirako Leidor aretoan antolatutako ekitaldietan garrantzitsuena», emanaldi horrekin batera, maiatzaren 18an izango den *Misterioso asesinato en Manhattan* komedia antzerkia azpimarratu dute Andoni Iturzaeta Udaleko kultur zinegotziak eta Jokin Ansorena kultur teknikariak. Woody Allen-en obra da, eta Francisco Vidalen zuzendaritzapean Enrique San Francisco bezalako aktore ezagunek hartzen dute parte. Madrilen arrakasta handia izaten ari den antzezlan da, eta «anbizio handikoa



Mikel Laboa emanaldi batean. HITZA

proposamena» antolatzaileen esanetan.

2007ko egitaraua antolatzerako orduan, orain arte bezala, aniztasuna, maiztasuna eta kalitatea hartu dituztela kontuan

azaldu dute bai Ansorenak eta baita Iturzaetak ere; «denetarik dago, haur antzerkia, musika, dantza... egia da gazteen-gan dugula ahulgune handiena, baina hori ari gara bereziki

lantzen», dio kultur zinegotziak. Kalitateari dagokionez, maila handiko emanaldiak ekartzea dutela irizpideetako bat gehitzen dute. Bestalde, maiztasunari ere garrantzi handia ematen diotela azaldu du kultur teknikariak; «gazte-koontzako kasuan, esaterako, hilean behin saioak antolatzeko konpromezua hartu genuen, eta hori mantendu dugu, eta horretan jarraituko dugu». Gainerakoan, 2007ko lehen urte erdian ia astebururo izango direla Leidor aretoan emanaldiak aurreikusitakoak dira.

## Zinemak «harrera ona»

Leidor areto berriua ireki zenetik ez da denbora asko igaro eta Udalak du ordutik proiektatzen diren pelikula aukeratzeko ardura. Hala, orain arteko saioek «harrera ona» izan dutela, eta batez ere gaztekoen filmetan ikusleen kopuru handia azpimarratu dute. «5-6 saio eskaintzen ditugu astebururo, tartean haurrentzakoak eta horrela jarraituko dugu hurrengo urtean ere; Eguberrietan esaterako, saio bereziak izango dira gaztekoentzat».

GIZARTEA ▶

## Barreterapiako begirale ikastaroa urtarrilean

La Risa Inteligente elkarteak antolatu du formaziorako hirugarren kurtsua

ERREDAKZIOA

La Risa Inteligente barreterapiako kultur elkarteak barrearen balioak bultzatzea du helburu nagusia, eta horretarako, urtero urtero kurtsu eta tailer desberdinak antolatzen ditu. Hala, lan eta helburu horrekin jarraituz, urtarrilean, barreterapiako begiraleen formaziorako hirugarren kurtsua antolatu dute Tolosan. 943 11 86 69 telefono zenbakira deitu beharko dute izena eman nahi dutenek, edota, [info@risainteligente.com](mailto:info@risainteligente.com) helbidera idatzi bestela.

## TELEFONOAK ▶

### Larrialdiak. ((112))

#### Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarralde.** Osasun etxea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**

- ▶ Anbulatorioa, larrialdi: 461111
- ▶ San Esteban: 006800
- ▶ Gernikako arbola: 006900
- ▶ Amaroako dispen.: 672637
- ▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
- ▶ DYA: 672536
- ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

#### Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
  - ▶ Donostiako autobusa: 361740
  - ▶ Tolosaldea bus: 650621
  - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
  - ▶ Taxia: 670420
  - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- #### Besterik.
- ▶ Ertzaintza: 538820
  - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
  - ▶ Tolargi: 650016
  - ▶ Iurrarmendi egoitza: 670325
  - ▶ Tolosa gasa: 675320

KULTURA ▶

## Bonberenean ekitaldiz blai, urteurrena dela eta

Zazpigarren urteurrena ospatuko dute etzi; gaurtik ekitaldi ugari antolatu dituzte

I. TERRADILLOS

Ekitaldi ugari antolatu dituzte Bonberenean, *Ekiniez egiña* lelopean 7. urteurrena dela eta gaurtik igandera arte.

Gaur, 22:30ean, Delorean eta Pinbol taldeen kontzertua izango da Bonbereneako taula gainean. Delorean taldea Zarautzetik dator bere azke lana *Intotheplateau* aurkezteko, eta Pinbol taldea, berriz, Hondarribiatik dator bere azken diska *I want to belive* Psilocibina Re-

cords-ekin argitaratutakoa eskaintzeko asmoz.

Bihar, 22:30etik aurrera, Bonberenean bertso saioa antolatu dute. Bertan, Jon Martin, Iñaki Gurrutxaga, Jesus Mari Irazu eta Xabier Silveira bertsolariak ariko dira norgehiagokan.

Etzi izango da, Bonberenean 7 urte beteko dituen eguna, eta goizen goizetik egitarau zabala gozatzeko aukera izango da. Hala, goizean, Bonberenea Txaranga kalez kale ariko da.



Bonberenea Txarangako kideak. NAIARA GARZIA

Jarraian, Bonberenean bertan, 14:30ean bazkaria egingo dute, Bonberenea Txaranga ere han izango delarik. Eta «egun berezi hau ospatzeko», 24:00etan su artifizialak izango dira Bonberenean.

Urteurrena etzi ospatuko badute ere, ekitaldiekin aurrera jarraituko dute, eta datorren ostiralean, hilaren 29an, Nuevo Catecismo Catolico eta Basque Country Pharaons taldeak ariko dira.

**ANOETA • EUSKARA**

## Biztanleen %69ak, kalean euskaraz

2001ean egindako neurketarekin alderatuz 9 puntu igo da indizea



Esker-eskuin: Idoia Olano, Fidel Azpiroz eta Larraitz Garmendia, i. e.

IMANOL GARCIA

Anoetan dagoen euskararen erabilera indizea %69koa da. Soziolinguistikak Klusterrak egin zuen neurketa aurtengo urrian zehar eta atzo eman zuten horren berri bertako Larraitz Garmendia teknikariak. Aurkezpenaren ere izan ziren Fidel Azpiroz alkatea eta Idoia Olano euskaratzen. Azken urteotan euskararen erabilera igo egin da bederatzita puntutan, orain bost urte egindako neurketan %60koa baitzen. Igpora hori inguruko beste zenbait udalerritan ere eman da, baina Anoeta da erabilera altuena erakusten duena.

Beste ondorio nagusi batzuk ere atera dituzte kale neurketatik. Adin taldeak hartuta, haurrak dira euskaratzen gehien erabiltzen dutenak (%85) eta jarrera gazteak (%78). Gaitzen erabiltzen dituztenak, berriz, adinokoak dira (%28). Helduen erabilera ere herriko batez bestekotik behera ageri da (%65). Adin bost urteko bilakaerari dagokionez, haurren, helduen, eta bereziki gazteen erabilerak gora egin diute lau urteotan. Adinokoan erabilera izan da jaitzi den bakarra. Garmendiak zehaztuakoa da araberak, adinekoen datua berezia da Anoetan: «Oñakoa da adinekoen datua helduenen parekoa izatea eta hemen alde nabarmena dago. Aurkeko neurketatik %16a jasatea ere ez da Euskal Herrian orokorrean ematen den joera.

**DATUAK**

- Orokorra. Herritarren %69ak hitz egiten du euskaraz.
- Adin taldeak.
  - ▶ Haurrak: %85a.
  - ▶ Gazteak: %78a.
  - ▶ Helduak: %53a.
  - ▶ Adinekoak: %28a.
- Generoa.
  - ▶ Gizonekoak: %74a.
  - ▶ Emakumezkoak: %65a.

Generoaren ikuspuntutik, gizonenak emakumezkoak baino joera handiagoa agertu diute euskaraz hitz egiteko, 10 puntuko alde, hain zuzen. 2001eko neurketan ere joera bera izan zen. Oñduan ere entzeko aldean neurten zen, 11 puntuko.

**Haurren presentzia**

Beste ondorioetako bat haurren presentziarekin lotuta dago. Erregio garrantzitsua da, haurrak presente izanik erabilerak hazi egiten baita. Haurrak mintzaldi direnean, batez ere beraien artean, edo zuzenean nagusiekin hitz egitean, erabilerak nabarmen egiten du gora. Hala ere, haurren presentzia soilak ez du eraginik nagusien erabileran.

Esan bezala, urrian egin zituzten neurketak. Gaztira 1.044 lagunen datuak jaso zituzten, hau da, haurtzaindarien zehazkuntza erabiltzen zuten kalean. Bost egunetan zehar egin zen neurketa, astegunetan eta asteburuan.

**ALEGIA**

**Diapositiba emanaldia gaur, Gaztetxean**

Gaur, Alegiko Gaztetxean XIX. urteurren dela eta, mendiko diapositibak izango dira ikusgai. 19.00etan ikusgai aurrera, gaztetxean bertan. *Alfamaioiko directa francesa* biderearen igoserari dagokien diapositibak izango dira. Eñzi, berriz, bertso bazkaria.

**VILLABONA**

**Fleming eskolaren jaialdia bihar**

Fleming ikasketak jaialdia egingo du bihar. Arroako erakinean (Haur Hezkuntza), Irrati saio berezia egingo dute 10.30etan. Gero 11.00etan haur guztiak elkartuko dira bistarora jateko. Azkenik, 14.30ean euskal jolasak egingo dituzte. Aurreratuko erakinean (Lehen Hezkuntza), 09.30an Gabon kantuen entsuga erokorra. 10.00etan kros herrikoia eta 11.00etan bistar jateko. Bukartzeko, 15.00etan jolasak egingo dituzte jolaslekuan.

**ALEGIA**

**Txintxarri abesbatzaren entsugua bihar**

Igandean Txintxarri abesbatzak 17.30etik aurrera abesbatza egingo du kaleetan zehar. Oñentzero datorrela iragaritzeko. Bestalde, bihar entsugua egingo dute bilaren Oñan kontzertuaren ondoren kantatuko duten abesti bat kantatzeko. Koron bilatuko jendeari lizatu zaien Alegiko eliztan, 21.15ean izango da entsugua.

**ABALTZISKETA**

**Santo Tomas Eguneko azoka berezia, bihar**

Santo Tomas Egunarekin lotuta, Abaltzisketan azoka berezia egingo dute bihar, 11.00etan hasita, eguerdian arte. Bertara, Ameriketako eta Ikaztegetako eskolako ikasleak joango dira. Produktuak bereziki izango dira, eta ez da bistarora fallako.

**ZIZURKIL**

**Herriko historiari buruzko liburur aurkezpena**

Liburuaren Astean, gaur, 19.00etan, Zuzurkilgo historiari buruzko liburur aurkezpena egingo dute Juan Carlos Mora Aranzadiko ikasleak Aizulondon. Bihar, Teodoro Hermadoren V Ipuin Lehiaketaren sari banaketa egingo dute 17.30ean. Gero, Xorpe taldeak *Liburuzainaren bahiketa* antzezina emango du.



**Londres**

*Euskaltelenekin,  
Europako sare mugagor modemoena,  
zuren atzetik.*

euskaltel  
ZURETZAT

Deitu 17171a  
edo zataz Euskaltelen saltokietara.

**KIMETZ GAZTE ARROPA** Oñentzero hementik jaso da eta za!!  
Nagusia, 23 • TOLOSA • Tel.: 943 67 38 62



Erriobeita 3 • Tel.: 943 69 33 75  
20150 Billabona

**Euskaltelen "Familia" plana**  
DEI GUZURKATU  
Euskaltelen "Familia" plana  
Eskaintza berezia  
Eskaintza berezia  
Eskaintza berezia

euskaltel  
ZURETZAT  
Deitu 17171a  
edo zataz Euskaltelen saltokietara.  
Nire Familia plana Euskaltelen Lehen Hezkuntza ikasleentzat eta mugikorrean baxen edo estantegietan. Proiektu hau da Euskaltelen "Familia" plana. Euskaltelen "Familia" plana Euskaltelen Lehen Hezkuntza ikasleentzat eta mugikorrean baxen edo estantegietan. Proiektu hau da Euskaltelen "Familia" plana. Euskaltelen "Familia" plana Euskaltelen Lehen Hezkuntza ikasleentzat eta mugikorrean baxen edo estantegietan. Proiektu hau da Euskaltelen "Familia" plana.

IBARRA ▶ KULTURARTEKO JARDUNALDIAK

# Jatorrinen Kultur Aste «positiboa»

Emitza onak izan arren, «espazio naturalak» sortu behar direla diote

MADDI SOROA

Hamaika ekitaldi izan ziren pasa den astean Ibarroko Kultur Etxean, Jatorrinen elkarteak Kulturarteko Jardunaldiak antolatuta baitzituen «kulturaniztasuna bultzatzeko». Balorazioa egiteko unean astea «oso positibotzat» jo dute eta helburuen kasuan «espazioak sortzea» lortu bada ere, «espazio naturalak» sortu behar direla adierazi dute antolatzaileek, «inplikazioa era naturala» egin dadin.

Ekitaldien harira, Mercedes Jimenezek *Lagundu gabeko adingabeko etorkinak* lelopean eginitako hitzaldian Kultur Etxeko gelak «gainezka» egin

zuela adierazi dute antolatzaileek, baita Amelia Barquinek *Euskara eta etorkinen hizkuntza integrazioa* gaitzat hartuta eskainitako mintzaldian ere. Diapositiba emanaldiek ere jendea «oso gustura» geratu zela azaldu du Jatorrinek.

Jardunaldien amaierako afarian proiekturiko *El sueño de Malika* dokumentalaren harira zera adierazi du Saad Malec Jatorrinek: «Dokumental honen bitartez bidean geratzen diren eta euren ametsa betetzen ez duten etorkinak omentu nahi izan genituen», izan ere, «asko hitz egiten da etorkinetaz baina ez hainbeste bidean geratzen direnez» uste baitu Malec-ek.

AMELIA BARQUIN ▶ MONDRAGON UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA

## «Ahalegina egin behar da eskolen bitartez haurrak euskalduntzeko»



HITZA

Mondragon Unibertsitateko irakaslea da Amelia Barquin (Bilbo, 1965). Kulturarteko Jardunaldietan euskara eta etorkinen hizkuntza integrazioaren inguruan mintzatu zen.

**Zein iritzi duzu euskara eta etorkinen hizkuntza integrazioaren inguruan?**

Bertako helduak ez dira ari euskara ikasten. Gustatu ala ez arrazoi nagusia behar ez du-

tela da. Etorkinak lanera etorri dira eta ez gure ondare kulturarengatik. Bestalde, ez dute behar ez komunikatzeko ez eta bertakotzeko ere.

**Eta haurren kasuan?**

Lan handia egin behar da eskoletan haur etorkinak euskalduntzeko, bertako haurrak euskalduntzen ari diren bezala, etorkinen haurrek ere aukera berberak merezi dituzte.

**Etorkinek euskararen normalizazioa oztopatzen dute?**

Hego Euskal Herrian populazioaren %6a da etorkina eta kopuru hori ez da erabakiorra normalizazioa oztopatzeko. Etorkinek ez dituzte arazo berriak sortu, lehendik zeudena nabarmendu baizik. Euskara normalizazio bidean dago baina ez dago lortuta. Soziolinguisten kezka nagusia erabilpena da eta ez etorkinek euskara ikasten duten ala ez.

**Zein dira hizkuntz-elkarbizitarrako erronkak?**

Zaila da etorkin helduek euskara ikastea, baina euskararekiko jarrera positiboa bultzatu eta prozesuarekiko errespetua izatea eska diezaiekegu. Haurren kasuan, ikastetxetara joatea da egokiena. Jarrera positiboak lortzeko jarrera positiboak eskaini behar dira. Euskaldunok ez dugu sinpatiarik jasoko ez badugu sinpatiarik eskaintzen. ◀

MERCEDES JIMENEZ ▶ AL JAIMA GKEKO KIDEA

## «Garbi dago immigrazioaren fenomenoak ez dela desagertuko»

Mercedes Jimenez (Sevilla, Espainia, 1972) antropologoa da eta baita Al Jaima GKEko kidea ere. Hainbat ikerketa lan burutu ditu adingabeko etorkinen inguruan. Egun, Tangerren bizi da eta oso gertutik ezagutzen du gaia. Pasa den astean hitzaldia eskaini zuen Ibarroko Kulturarteko Jardunaldietan.

**Adingabeko etorkinak, gori-gorian dagoen gaia.**

Oso garrantzitsua da oharreza arazo hau ez dela egoera zirkunstantzial bat migrazio fenomeno bat baizik, etorkin adingabekoen emigratzeko modu berri baten protagonistak baitira. Bai administrazioek bai eta gizarteak ere desagertu egingo den zerbait dela uste dute baina hori eredu atzerakaria da, ez soilik hemen baizik eta mundu mailan. XXI. mendean, immigrazioaren protagonista berriak adingabeko gazteak izango dira eta bakarrik immigratuko dute. Politikariek arazoa konpondu nahiko lukete guztiak atzeratuz, joan egingo direla pentsatzen baitute. Horregaitik, ez dago ardura-

rik gazte hauengan eta bermerik gabeko taldekatzeak egiten dituzte. Jarrera hori izan da ondorio txarrak ekarri dituen. Oso politizatua dagoen gaia da eta arazoaren konponbidea atzerirratzea dela uste bada ere, hori ez da horrela. **Adingabeko asko etorri da azkenaldian Tolosara.**

Euskal Herriak beti izan ditu etorkinak, baina orain, besteak beste Madrilen eta Katalunian gertatzen ari diren bermerik gabeko aberrirratzeen ondorioz, gazte asko etorri da Bizkaia edota Gipuzkoara. Aberriratzeko horietatik ihes egiteaz gain, probintzia hauen gazte etorkinek harrera ona dute ondo dokumentatuak izaten dira, horregatik etortzen dira.

**Nola ikusten duzu Tolosako zentroa?**

Tolosako zentroak, eduki ditzaizkeen gazte kopurua baino gehiago ditu eta gainera, bertan dauden etorkinen ezaugarriak oso ezberdinak dira. Batzuk etorri berriak dira baina beste batzuk toki askotan ibi-

liak dira noraezean eta oso izorratuak daude, kalean bizi izan direlako edota delitugintzan aritu direlako. Esku hartzerakoan ez da ondo definitzen bakoitzaren profila nola den eta guztiak tratu bera jasotzen dute. Haur hauekin lana egiteko baliabide gehiago behar da eta baliabide horiek espezializatuak izan behar dute profil bakoitzari erantzun ahal izateko.

**Zein da gazte horien egoera?**

Denetik dago, batzuk eskolatuak daude eta ondo erantzuten ari dira baina badirudi hauek ikustezinak direla, soilik arazoak sortzen dituzten adingabekak hartzen baitira kontutan. Zergatik? Bada, gaizki portatzen badira, berriengatik borrokatzeak ez duela merezi helarazten diegulako. Gazteak kriminalizatuak daude eta gaizki tratatuak direnez beraiek ere gaitza bera egiten dute. Indarkeria erabiltzen dute eurek ere indarkeria jasotzen dutelako. Jasotzen dutena ematen dute baztertuak sentitzen direlako.



HITZA

**Ba al dago arazo honen inguruko erantzulerik?**

Erantzunkizun guztia adingabeengan ezartzen ari da baina gazte horiek Aldundiaren esku daude eta zentroetan ere zaindariak dituzte. Hala ere, gizar-tearen ardura ere badela uste dut, gazteen tokian jarri eta berriengatik kezkatu beharko luke jendeak. Adingabek hezkuntza erreferente bat behar dute, horregatik, jarraipena egingo dioten hezkuntza institutuak sortu beharko litzatekeela uste dut.

**Nola ikusten duzu etorkinaz emigrazioaren arazoa?**

Immigrazioaren fenomeno osotasunean aztertuta behar da eta erantzunkizunak hartu. Garbi eduki behar dugu immigrazioaren fenomeno ez dela desagertuko. Immigrazioaren prebentzioa landu behar da emigratzen den tokietan ongizateko instrumentu errealek eskainiz. Atzerirratzea ez da irtenbidea, etorkinak berriro saiaturiko baitira immigratzen. Etorkinentzako ongizateko gizar-te egitura baten alde borrokatu behar da. Emigratzeko beharrik ez egotea litzateke immigrazioaren arazoa konponzeko gakoak. ◀

GIZARTEA ▶

# Eskoletan Gabonei ongietorria emateko festak egingen dituzte

Areson, urtero bezala, Olentzerori ongietorria ematen eta honen opariak jasotzen lehenengoak izanen dira bihar

NAIARA GARZIA

Gabonetako oporrengi ongietorria emateko aitzakiarekin urtero bezala festak antolatu dituzte Euskal Herriko hainbat ikastetxetan. Honela, jai giroan, ikasleak, irakasleak eta gurasoak eskutik hartuta Gabon aurreko azkeneko lan eguna elkarrekin igaroko dute.

Leitzako institutuan goizean goiz hasiko da festa eguna, 08:15ean, hain zuzen ere. Hiru film batera eskainiko dituzte ordu berean. 10:00etan marrazki lehiaketa egingen dute, *etxeko maskota* lelopean. Hau da, etxeko animaliak izango dira marrazkietan azalduko direnak. Beste urteetan irakasleak marrazten bazituzten ere, modu objektiboan edo hauen

karikaturak eginez, aurtun gaia aldatzea erabaki dute.

10:45ean saskiaren zozketa egingen dute pilotalekuan, eta ondoren, hamaiketako 11:00etan. Garai honetan ohikoa den bezala, txistorra ogitartekoak banatuko dituzte. 11:20ean mus txapelketa izanen da, eta jokuekin jarraituz, futbola, 12:30ean. Ordu honetan bi ekitaldi daude antolatuta, bata kalean, bestea ikastetxe barruan. Futbola kalean jokatuko dute, ikastetxe barruan, berriz, *Pictionary* joku ezaguneari nahi duenak horretarako aukera izanen du.

Ereleta eskolan, berriz, beranduxeago hasiko dute festa eguna. 10:30ean kantu jaialdiari hasiera emanen diote; 10 talde inguruk hartuko dute parte

kantu jaialdian, eta bukaeran irakasleak ere kantuan ariko dira. Orokorrean kantu jaialdirako aukeratu dituzten abestiak Euskal Herrikoak dira. Ordu eta erdi inguruan bertako ikasleek hainbat abesti kantatuko dituzte. Emanaldia eta gero, Amazabal institutuan bezala, eta Euskal Herriko ikastetxeetan egin ohi den bezala, eskolako jantokian bertan egingadako txistorra ogitartekoak banatuko dituzte.

Areson, berriz, antzezlan batekin estreinatuko dute Gabon aurreko azken eguna, *Behin herri batean bazen eta...* deitutako antzezlanarekin, hain zuzen ere. 11:00etan, bai ikasleak, bai gurasoak, baserritarrez jantzita herriaren sarrerara hurbilduko dira, Olentzerori



Ereleta eskola Gabonetarako apaindu dute. N. GARZIA

pertsonalki ongietorria ematera. Olentzeroren etorrerarekin batera, opariak ere iritsiko dira Aresora, eta hauek lasai ederrean irekitzeko eskolara itzultuko dira.

11:30ak aldera, jaialdiaren 2. zatiari hasiera emango zaio, kantu-jaialdiari, hain zuzen ere. Hemen eskolako umeek

abesti batzuk kantatuko dituzte, Lehen Hezkuntzako lehenengo hiru mailak alde batetik, eta azken hirurak bestetik. Aukeratu dituzten abesti gehienak ingelerazkoak dira. Azkenean, ikasle guztiek elkarrekin abestuko dute, eta ondoren, gurasoek ere parte hartzeko aukera izanen dute.

LEITZA ▶ KIROLA

## Atekabeltzeko futbito txapelketa, bihar

Gaueko 22:00etan hasiko da herriko kiroldegian eta 24 orduko iraupena izanen du

N. GARZIA

Gabonetako Atekabeltzeko futbito txapelketa antolatu dute bi egunez Leitzan, hilaren 22 eta 23 bitartean. Txapelketa bihar hasiko da, 22:00etan eta 24 orduko iraupena izanen du.

Arauen arabera, taldeak zor-tzi partaidez osatuak egongo

dira, eta gutxienez 2 jokalarik neska edo mutila izan beharko dute, hauetako bat partida osoan jolasten egongo delarik. Honen arabera, taldeak mixtoak izango dira.

Herriko gazte asanbladak antolatu du txapelketa lehenengo aldiz, eta talde honetako kide den Irati Iparragirrek

azaldu duenez, «gure helburua Atekabeltz bizirik dagoela erakustea da». Duela hilabete inguru hasi ziren hau guztia antolatzen eta dagoeneko «8 bat taldek» izena eman dute.

Txapelketa kiroldegian egingen dute, eta bertan kafea egonen dela adierazi du Iratik. «Honetaz gain, edariren bat

nahi duenak ere Atekabeltz irekita izanen du gau guztian zehar». Goizaldean, hamaiketako prestatuko dute, hainbeste ordu eta gero eta larunbateko egun luzearen aurrean gorputza suspertzeko.

Talde bakoitzak 30 euro ordaindu beharko ditu txapelketa egunean bertan.



Atekabeltz. N. GARZIA



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

## Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

### ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldekohitza.no



**AGENDA ▶**  
**DEIALDIAK**

**Irura.** Trinketean, 19:00etan, Loatzo musika eskolako ikasleek kontzertua emango dute.  
**Alegia.** Galtzaundik antolatuta 18:15ean, Idoia Sanchez ipuin kontalaria Alegiko Udal Liburutegian izango da, 18:15etik aurrera.  
**Alegia.** Gaztebearen XIX. urteurrena dela eta, *Altamayoko directa francesa* mendiko diapositibak izango dira ikusgai, 19:30ean.  
**Ibarra.** Gaztebeak bigarren eskuko gauzen azoka antolatu du gabonetarako. Material biketa abenduaren bihar arte izango da Gaztebean bertan 18:30etik aurrera.  
**Berrobi.** Hilaren 28an podologoaren bisita izango da 15:30etik aurrera. Interesatuak, orde, alde zurretatik eman beharko dute izena udaleko bulegoetan edo 943 68 32 94 telefono zenbakian. Izena emateko azken eguna hilaren 22a izango da.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.  
**Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikako arbola. 943 65 10 40.

**IRRATIA**

**Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)**  
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...  
 18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).  
 20:00-21:00. *Irauli uhinak*.  
 21:00-23:00. *Bide okerretik*.

▶ HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Anbroxiaren egun handia

**LEITZA ▶** Arro baserrian hezi duten zerria gaur Santo Tomas Eguneko protagonista izango da, Donostiako azokan; 370 kilo pisatzen ditu



Anbroxia gaur protagonista izango da Santo Tomas eguneko azokan. NAIARA GARZIA

**NAIARA GARZIA**

**A**urreko urtean Afrodita izan zen. Aurten berriz, Santo Tomas Eguneko zerririk ez du aurreko urtekoak bezain izen exotikoa, izan ere, Anbroxiak, exotismotik haratago, Euskal Herriko baserria ekartzen du gogora, sukaldea, are gehiago, baserriko amona.

Anbroxiak 370 kilo pisatzen ditu bere ederrean, eta Leitza-ko Arro baserrikoa da. Baserriko lasaitasunean eman dituen egunetan Santo Tomas bezalako jai baten protagonista izanen dela pentsatu ere ez du egin, baina hala da. Gaur, egun guztian zehar, Donostian izanen da ikusgai, altxor preziatu bat balitz bezala.

Ez da Leitzaatik Donostiara santotomasetara eramaten duten lehenengo zerria: aurreko urtean Afrodita izan zen, eta 2004. urtean, Martin Alduntzin Kaballerok hazitako Josepo. Kristina Saralegi Arrokoak azaldu duenez, «Landraz errazakoa da Anbroxia, hemengoak txikiagoak izaten baitira».

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
**Ebanista Anate Luluaga** (Lizartza). Ondo pasa Santotomas eguna seme-alaba eta billoben partetik.

**URTE ASKOAN**  
**Amagoia.** Maitasunezko mundu baten amaxori! Maite zaituztegu! Beti zure ondoan.

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.**

- ▶ HITZaren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZaren egoitza Leitza Udaletxeko bulegoa

**hitza**  
 agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko etzeiak, ezkontzak, jaioberriak...